

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gainek jendaurrean edukitzea eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga biltzeko epea: 2025

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 15. artikuluekin bat etorritik, iragartzen da jendaurrean jarriko dela 2025eko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikula, honako toki hauetan:

Udal eremuko kuotak: Zigoitiko udaletxean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Probintziako eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Aztertzeko eta erreklamazioak egiteko epea hamabost egun baliodunekoa da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iragarki honek betetzen du matrikulan sartutako likidazioak kolektiboki jakinarazteko eginkizuna, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluen arabera.

Jendaurrean jarri den matrikulan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Alkatetzari, borondatezko ordainketa-aldian eta hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro arte.

Jardueren kalifikazio-egintzen aurka jartzen diren errekurtsuak eta erreklamazioak Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 229.etik 246.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertzeko errekurtsua ebazteko organo eskuduna.

ORDAINTZEKO EPEA:

A) Borondatezko aldia: 2025eko azaroaren 1etik abenduaren 31ra.

B) Premiamendu-aldia: 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta premiamendu administratiboko prozedura betearazlea hasiko da, kasuan kasu dagokion errekurtsua aplikatuta (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA:

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta zutenek ez dute inolako kudeaketarik egin behar, bankuko helbideratze-kontua aldatu ez badute. Udala ordainketa izapidetzeaz arduratuko da.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek kreditu-txartelaren bidez ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, "Nire ordainketa" (www.zigoitia.eus) ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango dute, edo, bestela, Kutxabank eta Euskadiko Kutxa erakunde laguntzaileen bulegoetan ordainketa-agiria aurkeztuz.

Ondategin, 2025eko irailaren 8an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA